Jesusen bizia (suite)

de ? Hiriart ?

BULLETIN DIOCESAIN
16 Place Mgr Vansteenberghe
64100 BAYONNE

1

## 2. Jesus gelditzen Jeriko hirian.

(Mt XX, 29, Luc XIX, 1, 10)

Zazpi, zortzi egun pazkoaren aitzinean, Jesus iragan zen Jeriko hirian gaindi, dizipulu eta beilari andana bat lagun.

Hiri handia zen Jeriko, handia, ederra, aberatsa, Palestinako bigarrena.

Jeriko hirian Jesusek bihar zuen kausitu Bartimee eskale itsua eta Zache publikano aberatsa.

Bartimee bide bazterrean zagon, jendeari karitate galdez, asroilan sarthua. ~~Jendek~~ Entzuten du gure itsuak ~~[illegible] kanthatu~~ harrabots bat. Zer den berehala jakiten du: Jesus Nazarethekoa, Galileako profeta mirakulu egilea hor gaindi iragan beharra zen. Oihuka hasi zen, oihuak gaindituzen zutela jendearen harrabotsa: «Jesus Dabiden semea, urrikal zaite nitaz.»

Nahi zuketen ichilarazi, baina deballdetan.

Gerota gehiago oihuka ari zen: «Jesus, Dabiden semea, urrikal zaite nitaz»

Jesusek galdatu zuen ekar zezoten itsua. Jendeak orduan itsuari: «Zoazi, adichkidea, chuti zite, nagusiak deitzen zaitu.» Berehala itsua chutitzen da, bere soin gainekoa kentzen du eta jauzian badoa Jesusen oinetarat. ~~Sol~~ ~~[illegible]~~ Hainen arteko solasak guti irauten du: «Zer nahi duzu egin dezadan zuretzat?» «Nagusia, ikus dezadan!» Jesusek entzuten du erranez: «Zoazi, zure fedeak salbatu zitu»   Berehala, itsua argitu zen; Jainkoari eskerrak bihurtzen zitzozkan eta jendeak harekin batean.

Itsu hori lehen gerichtinoen lerroan zitakeen, haini arthoski atchiki daukunaz geroz San Markek haren izena.

Bizi zen ~~Bazien~~ Jeriko hirian zerga biltzale andana handia. ~~[illegible]~~ Buruzagi bat baziten, Zache. Juduen zen gizon ona, aberatsa. Ez bide zitazken zuzen kontua biltzea bere ontasuna.

Erdiak emanak zituen pobreeri eta zerbeit kalte egin bazuen, gogotik itzultiko zituen lau batentzat. Hots! publikano ona.

Zachek arras ikusi nahia zuen Jesus. Bainan nola hel hara ikusterat? Gure gizona arras ttipia zen eta jende zernahi bazuen inguruan. Bide bazterrean baitziren arbola batzu, ~~haren~~ batean gainerat igaiten da, handik hobeki ikusteko.

Bertze ikusliar zonbait ere bazitazkeen arboletan, bainan Jesusek bezilak Zache zuen ikusi, hura ~~bakarrik~~ zen bakarrik mintzatu, adichkide bati bezala: « Zache, jautsi zite bichtala, zeren egun bereari jin beharra niz zure etcherat. »

Fagore handia, molde ederko lekua.

Gomitak onhartzen zituen Jesusek, bainan etzen bere buruaren eskaintzen aitzin, bereziki ezagutzen etzituen familietarat.

Bere arbolatik jautsi egin zuen Zachek eta lasterka abiatu zen etcheko apailuen egiterat. Murmurikan ari zen jendea, erranez: « Horra bada, bekatoros batzu etcherat badoa » Nihork etzakien Jesusen behakoak arras bertzelakatua zuela.

Zache bichtala mintzo da Jesusi erranez: « Jauna, ene ontasunen erdia ematen diet pobreeri eta norbaiti kalte egin badiot, itzultzen diot batentzat lau. »

Gogotik uzten ditaz bere ontasunak. Hera ere bardin jarraik litake Jesusi, Mathiuk bezala galdea balu. Zer atseginekin entzun zituen Jesusek adiarazi barkamenduzko hitzak: « Egun etche huntan sartu da salbamendua, delakotz gizon hau Abrahamen egiazko umea. Gizonaren Umea galdua zenaren bilha eta salbatzerat jina da. »

Zacheren ichtorio horrek agertzen dauku ederki zer lan balios segeretua egiten duen graziak arimen biltzeko. Jesus ikusi nahi du Zachek eta mintzatu. Entzun duenetik salbatzailea, huna gure gizona arras bertzelakatua: bere ontasun guzien uzterat



prest da eta bardin Jesusi jarraikitzerat.

Zer bilhakatu zen ~~Jes~~ Zache?

Egin omen zen Zezareko apezpikua eta handik Frantziarat ethorri, Quercy deitu eskualderat. ~~Dena dela~~ Zernahi izanik, Jesusen ahotik badakigu salbatua izana dela: bizi zelarik Sainduen lerroan ezarri zuen konfesatzen ez diz erraile handiak.

### 3. Talenduen edo minen parabola (Luc XIX, 11, 27)

Jerikotik iragan zelarik Jesus, jende adichkide batzuen lagun, Zacheren etcherat. Arras berotua zen populua. Uste zuten hurbiltzen ari zela Mesiasen denbora eta Jerusalemen beharra zela agertu gertakari handiena, denen ikusteko.

Jende egin egon horri, Jesusek eman zuen erakaspen handia, talenduen parabola adiarazi ~~agertuz~~.

Sortze handiko gizon bat joan zen urruneko herrialde batera erregetasunaren hartzerat gero itzultzekotan. Eta hamar sehi deithurik eman zioztan bedera talendu edo mina eta erran zioten: irabazian erabil zazue ni ethorri arte.

Minak balio zituen ehun libera urhetan.

Bainan hastiatua zuten herritarrek eta mezulariak igorri zizkaten erranez: ez dugu nahi gizon hori gure erregetzat. Itzuli zelarik errege jarri ondoan, manatu zuen deith zetzazten dirua ukan zuten sehiek, ikusteko zer irabazi egin zuen bakotchak. Lehena ethorri zen erranez: Jauna, zure minak irabazi ditu bertze hamar. Eta ihardetsi zion: ederki, zerbitzari ona, zeren gauza ttipian leial izan baitzira, hamar hiriren gainean ukanen duzu manamendua. Eta bertze bat ethorri zen ziolarik: Jauna, zure mina bertze bortz ondua da. Hari erran zion: eta zu izan zite bortz hiriren buruzagi. Eta bertze bat ethorri zen ziolarik: Jauna, huna zure mina, oihal batean altchatua atchiki dut, ezen zure beldur nintzen, gizon

zorrotza zarelakotz, altchatzen baituzu pausatu ez duzuna eta biltzen erain ez duzuna.

Ihardetsi zion nagusiak: hire erranetik juiatzen hut, zerbitzari gaichtoa. Gizon zorrotza nizela bazakien, pausatu gabe altchatzen eta erain gabe biltzen dudana. Zertako bada ez duzu zure dirua ezarri mahaineari, handik nik athera nezan irabaziekin? Gero, han zireneri mintzatuz erran zuen: Ken zazue horren eskutik mina eta emazue hamar dituenari. Hek ihardetsi zioten: bainan, jauna, hamar baditu! Nik erraiten dautzuet: duenari emanen diote, ez duenari aldiz kenduko diote duen hura ere.

Ene etsaiak aldiz, ni erregetzat nahi ez nautenak, ekarraraz itzatzue hunat eta hil ene aitzinean.

Parabola ederra, erakaspenez bethea.

Erregetasunaren bilha doan gizon hori, Jesu-kristo da. Errege da jadanik, bainan ez da oraino agertu errege koroatua izana. Horren ardiesteko bere zeruko aitaren ganat badoa. Haren etsaiak mintzatuko dira pasioneko egunetan, erranez: ez dugu nahi gure errege izan dadin.

Parabolako erregea goiz edo berant jinen da bere errege jauntziean eta orduan bakotchari emanen dio bere obren arabera. Gaztigatuko ditu haren kontra altchatzen diren zerbitzariak, saristatuko aldiz leial egon direnak. Talendu bedera emana diote bakotchari, ikusteko zer leialtasun erakutsiko duten.

Erakaspen bera da molde bereko den parabola batean, San Mathiuk dauku emaiten parabola hori (Mt. XXV, 14, 30)



# Laugarren liburua

## Jesusen hiltzea eta biztze berria

## Lehen Kapitulua: Bazkalentzia laburra.

### 1. Bethaniako bazkaria.

Pazko arraz zen hurbiltzen. Jendea abiatua zen Jerusalemeri buruz. Batzu phestaz aintzin heltzen ziren debozioneazko urhats zonbait egitea gatik. Bertze batzuek aldiz beren egon-tokia hitzartzen zuten askorenik. Hiru miliun jende biltzen ohi zen Jerusalemerat Pazko-kari.

Jend alde horren erdian ainhitzek bilhatzen zuten Jesus Jauna. Eta Jesus ez agerri. Bereziki galileanak ari ziren elgarri: zer zaitzue iduritzen? Ez othe zauku phestetarat jinen?

Fariseuak eta apez nagusiak bepa zauden sekulan baino kechuago bere etsaiarentzat. Gizonak hitzematuak zituzten jakinarazteko nun zabilan. Haren biltzea deliberatua zuten, edo abilezian edo indarrez, parada bat gerthatzen zeneko.

×

Bere etsaiak tzarrenetan zirelarik fariseuak, Jesus heldu zen Bethaniarat. Atsegin handirekin hartu zuten anai arrebek eta bardin, jende guziak. Etzuten galdua gogotik harek zuela Lazare hiletarik phiztu. Bazkari bat ederra muntatu zuten haren ohoretan. Larunbata zen, phazkoko eguna, bainan bezperatik apailatuak ziren bihar izan jatekoak.

Bazkaria, Simon lepradunaren etchean. Hau Jesusek zen sendatua bere lepratik. Bazkaltiarren artean kausitzen zen Lazare. Bazkariaren gidari, Martha. ~~Maria ez han zen~~

Bazkaltiarrak orduko usaiaren arabera etzanak zauden, ~~ezk~~ beso ezkerrak gorphutza atchikitzen zuela, zangoak luzatuak, lurra jorten.

Emazteak etziren agertzen bazkari horietan, eta han zirelarik mahain bereetan bakarrik.

Huna nun bazkariaren erdietan jan tokian sartzen den Martharen ahizpa, Maria, eskuetan zuela alabastrezko jiola lepho luze bat. Usain on finenaz bethea. Murrian jarraikiz, heltzen da Maria Jesusen mahain tokiraino. Orduan, tapagailua kentzeko orde, untziaren lephoa hausten du, eta barnean zen



guzia husten Jesusen buruaren gainerat, gero haren zangoetarat. Oraino ez aski: Jesusen zangoen gainerat ichurtzen da eta hek chukatzen bere ile ederrekin. Etche guzia usain onez bethe zen.

Bazkaltiarrak so zauden landatuak. [Juduek bazkariaren erdian untzi bat hausten zuten, erakusterat emaiteko gure bizia ezdeusa dela. Mariak ere agertzen zuen Jesusen bizia laster bururatu beharra zela.

Bazkaltiarrak Mariarekin bat zauden ohore emaite hortan, noiz eta gizon bat muntatu baitzen kechu kechua, gizon hori Judas, erranez: « Zertako baida beharrgabeko chahutze hori! Barreatzen ditu zuen ur gocho horiek, saltzen ahal zitazken hiru ehun denario, pobreeri emaiteko saria »

Hiru ehun denario, langile batek urthean irabazten zuen soldata.

Judasek bere zikoizkeria ~~galtzen zuen~~ gorde nahi zukeen bihotz osoa zuelako estalkirian. Judas ohoina zen eta diruzain ezarria baitzuen Jesusek, diruetik parte atchikitzen zuen beretzat. Moltsan gehiago diru eta errechkiago zukeen ebasteko.

Jesusen oinetan jarririk, solas gaichto horiek etzuten jo Mariaren bihotza. Bazuen zuen konzientzia. Fedea eta amodioa zituen gidari. Bainan zer atseginekin etzuen entzun Jesusen arrapostua: « Zertako gaitzki ekartzen duzue emazte hau? Pobreak ukanen ditutzue bethi zuen artean eta hek errechki laguntzen ahal ditutzue. Ni aldiz, ez nauzue bethi zuen artean ukanen. Aitzinerat zantzutu du ene gorphutza ehorzteari buruz. Egiazki nik erraiten dautzuet, Ebanjelioa predikatua izanen den toki guzietan, emazte horrek enetzat egin duena hedatua izanen da haren ohoretan.

Jesusek erran bezala gerthatu da.

Eliza eta kapera guzietan predikariek aiphatzen eta aiphatuko dute emazte saindu horren egitatea. Denentzat erakaspen.

## 2 - Jerusalemen sartzea -

Jerusalemen jakin zuten judek Jesus Bethanian zela. Larumbatan eragan orduko, ikusliarrak ethorri ziren tropelka. Lazare biztu hiletarik phiztua nahi zuten beren begiz ikusi. Hura ikustearekin mintzaldo gutik baino gehiago balio zuen. Lazare mintzatu ta sinhestedun egiten ziren. Apez nagusiak bizi-ki kechu ziren; heien lardería menderatuz zoan, emendatuz aldiz Jesusen omen ona.

Zer egin! ari ziren etzutenez Lazare hil behar, harek gaitzeko pocholua egiten zioten. Bainan, Lazare baino etsai gaichtoago zuten, haren phiztaliea. Parada baten beha zauden bere atakada egiteko.

Jinduen larumbat biharamunean, Jesus Bethaniatik atheratu zen Jerusalemerat joaiteko. Bidean abiatu ~~orduko~~ zeneko, jendea bildu zen azkarki, bidean joanago eta gehiago. Betfage herriaren alderat heltzean, derautzo ditu bi dizipulu erranez: "Zoazte hor aintzinean duzuen herrichka hortarat. Hor ~~[illegible]~~ atchemanen duzue astagna bat eta astokume bat hezgaitza. Lachatzkitzue eta ekar hunat. Eta nehork deusik erraiten badautzue, errozue Jaunak behar dituela eta berehala gibelerat igorriko du."

Jesusek erran bezala gerthatu ziren orok: Jesusek badazki orok eta molde hortako Jerusalemen sartzea nahi zuen.

Joan ziren beraz bi mezulariak. Bide bihurgune batean ikusi zuten astoa. Lachatzerat abiatu zirelarik, jendek galdatu zioten: zertako lachatzen duzue astoa! Jesusek erran bezala ihardetsi zuten eta oro egin harek erran bezala.

Astokumea ekarri zuten bere amarekin, errechkago moldatzea gatik.

Astokume hezgaitzaren gainean izan zen Jesus. Zakari profetak aintzinetik ~~[illegible]~~ errana zen sartze hori, berri bere chehetasun guziekin.

Kambiakor da jendea. Egun ekhe zartaka ari da gizon bati, bihar, hura bera handiz larrue lezake.

Han ziren bilariak elgarretarat biltzen diren proosino batean bezala.



Batzuek estalgiak ezartzen dituzte, zela orde, astoaren bizkarrean eta Jesus jararazten. ~~dute~~ Bertze batzuek soin gainekoak lurrean hedatzen dituzte, tapis orde. Bertze batzuek eskuan hartzen dituzte arbola alchachkak, hostoila freskoak eta hek altchatuz bizkarib handitan, ohore egiten diote bere hirian sartzen ari den erregeari: Hosanna Dabiden semeari, hosanna zeru gorenean. Benedikatua izan bedi Jaunkoaren izenean heldu dena, benedikatua Izraëlgo erregea.

Hosanna, hitz horrek erran nahi du: lagun gaitzatzu jauna. Erran genezake egun, biba, edo gora!

Errege da Jesus, bainan ez da haren erresuma lur huntakoa. Ez ditu ohore handiak nahi.

Egia erran, iguzki aldeko astoa ederra da handia, indar zaitzekoa, bainan ez da halarik ere errege zaldia. Astoaren gainean beharra zen heldu Jesus Jerusalemerat, Zakari profetak erran bezala, bainan apostoluek eta dizipuluek etzuten profezia hori gogoan.

Ordu arte, etzituen Jesusek onhartu jendek erran nahi zeizkoten ohoreak. Ogiak emendatu zituelarik, errege izendatu nahi zuten, mendirat igan zen. Itchuraldatzea ikusi zuten apostoluei eta sendatzen zituen eriei, manatzen zioten bethi ichil egotea: Jainkoaren Semea zela adiarazia zuen, bainan ez hala klarki.

Bainan huna ~~orena~~ eguna eta orena. Behar du bere populuari jakinarazi Mesias dela, Jainkoaren Semea.

Dizipuluak, apostoluak, jendea, orok oihuka ari ziren. Prosesino horrek iduri bide zuken lurden askotan ikusi prosesinoak, lurden baino ordea gutiago gorekin haatik.

Han aurkitzen ziren fariseu batzuek etzuten beren kechua gordetzen ahal. Jesusi erran zioten: "Nagusia, ichilaraztzitzu zure dizipuluak." Ihardetsi zioten: "Hok ichiltzen balire, harriak mintza litezke gora!"

Nehorck ere, ez ditake egia gorde. Beharko da noizbait agertu. Ez dea zuzen ohoratua izan dadin Jainkoa, Jesu-Kristori esker egin ditetzen obra ederrez! Ichiltzen balire jendeak, mintza litazke gauzak.

Utzuten apostoluek berotua jende hori. Berak ere jendeari jarraikiten ziren. Haurrak berak oihuka ari ziren: Hosanna Dabiden semeari. Ichilarazi nahi zituzten fariseuek, bainan debaldetan. Jesusi ere gaizkika ari ziozkan. Jesusek erran zioten: «Nik ere entzuten ditut; ez othe duzue irakurtu liburu sainduetan: haurren eta bulharrekoen direnen ahotik, moldatu duzu zure loria, etsaieri ihardokitzeko, etsaia eta jelostiak dira ichilarazteko»

Ohorezko garrasia horiek entzuten zituen Jesusek bainan bazakien astea barne, jende hori bera ariko zela oihuka: Ken, ken, kurutzeari loth zazue.

Bihotza ilhun, patharea gogoan bazoan aitzina. Olibetako menditik jaustean, begi menean huna Jerusaleme. Orduan, nigarrek begiak busti ziozkaten, hazaren hobiaren aldean bezala. Nigar khiretsak, ez baitzuen orduan esperantcha oritk ikusten. Solas hok adiarazi zituen: «ah! Jerusaleme hire egun huntan ezagut baheza zerk ekhar lezakenan bakea! Bainan orai estalia dun hiretzat! Horra zertako ethorriko ditun hire gainerat egunak, eta hire etsaiek inguratuko haute phezoinez, sethiatuko haute eta alde orotarik hertsatuko, eta lurrerat aurtikiko zaituzte hi eta barnean ditetzan hire haurrak; harria harriaren gainean ez diten hitzan utziko, zeren ez dunan ezagutu hire Jainkoa ikustera ethorri zainan eguna.»

Jainkoak bere grazia eta salbamendua eskaintzen zituen eguna.

Hiri guzia airean zen. Bizipuluak bozkario handitan Jainkoak benedikatzen zuten. Jende chehek bere bozkalentzia agertzen zuen bihotz osoaz. Apez nagusiak kechatuak ziren, bere barthan egiñez, nola bada bururatako ziren gauza horiek guziak.



Errabia gorrian ziren fariseuak, elgarri egiñez: «Gure entsegu guziak direla debaldetan deia, jende guzia ondotik badoakio.»

Jesus egon zen so luzaz jende horri. Gaua heldu ~~baitzen~~ zelakotz, Bethaniarat itzuli zen bere apostoluekin; han iragan zuten gaua.

## Astelehen saindu: Judu populua utzia

### 1. Pikondoaren madarikatzea (Mt XXI, 18, 19)

Astelehenean, goizalderat, Jesus templotik itzuli zen. Bezperan aski akitua, goiz hartan ere barur, gosea kausitu zuen. Jesusek badu gure bezalako gorputz bat: ezarritzen da, akitzen, lokartzen, gosetzen. Gure ahulezia guziak bizitu, bakhe bekhatua.

Bide bazterrean bazen pikondo bat, ~~hostaila~~ hostaila ederrarekin. Pikondorat hurbildu zen Jesus, fruiturik bazenetz ikusteko, bainan etzuen arbolak hostorik baizik. Etzen pikoen sasoina. Bizkitartean, Jesusek madarikatu zuen arbola fruitu gabea erranez: Nehork ez dezala jan hik emanikako fruiturik!

Bazakien Jesusek, nehork ez bezala, ez dela pikorik ekaina aitzin, eta azken pikoak erortzen direla neguko lehen hotzetan.

Zer erakatsi nahi dauku beraz Jesusek fruitua bilhatuz ez den tokian? Zertako madarika hobendun ez den arbola!

Parabolen erakaspenetan trebe direnak errechki kompreniti dute Jesusen egitatearen funtsa. Huna zer den erakaspena:

(bethi) Jainkoaren zerbitzuan, gizonaren bizia behar da izan fruituen sasoina. Fruitu horiek, Nagusi handiak galdegiten ahal ditu uste gabean.

Jainkoak zer dauku galdegiten?

Ez bakarrik chede onak (piko hostailak) ez eta bakarrik gutizia onak (pikoaren loreak), bainan fruituak, erran nahi baita obrak. Zorigaitz azken egunean obrarik gabe agertzen den gizonari. Obra onak eskas, onak falta! Obra onik gabe agertzen den gizonak bethierecko gaztigua luke, ifernua.

Hori zuten kompreniti orduan apostoluek. Hastu bertzerik kompreniti behar zuten. Pikondoaren madarikatzeak gogorat emaiten zioten, Juduen populua bezala, ~~popul~~ bazterrerat utzia beharra zela. Piko hostodunak hostailak alferrak bezala, Judu populuak bazituen alegiazko bertute batzu, bainan egiazko obrarik ez. Pikondoaren pare, madarikatua izanen zen Juduen populua.



Jesusek madarikatu arbola osoa berean eihartu zen. Bainan apostoluak etziren ohartu ~~arat~~ biharamunean baizik. Atzuten igurikatzen gisa hortako mirakulua. Jondoni Petrik erran zion Jesusi: « So egizu Nagusia, zuk madarikatu duzun pikondoa, eihartu da. »

Gisa hortako erranaren ihardetsi gabe, Jesusek eman zioten apostoluei botere handiagoa oraino: « Izan zazue Jainkoa baithan sinheste. Egiazki erraiten dauzuet, sinhestea bazinute, azkar eta bihar, manatzen bazinute mendi horri altcha dadin eta jauts itsasorat, egin lezake. »

Solas horiek erraitean, erakuts zituen Olibetako mendia eta itsasoa. Eta erran zuen: « Zuen othoitzetan galdatu guziak, sinhestearekin galdegiten baduzue, ardietsiko duzue. »

Mintzo zen lehenik mirakuluetan sinhesteaz; sinheste horrek mendiak lekuz aldaraziten ahal ditu. Orai aldiz mintzo da othoitzean ezarri behar den fidantziaz. Othoitzak entzuna izaiteko, behar du izan fidantziarekin egina, bilhatuz Jainkoaren loria eta othoitz egilearen ontasuna.

### 2. Saltzaleak templotik kasatuak

Jesusek templuan beharrak zituen erran bere agerian predikatzen azken bi egunak.

Eman ditzagun chehetasun zonbait templuaz. ~~Sekulu~~ Eremu handia hartzen zuen templuak, Parisen Concordako plaza baino handiago. Dabidek, Salomonek, Herodesek lan gaitzak eginak zituzten bar. Lur andana handiak bazituzten aldaratuak, leku patarra ez ordoki egiteko. Halarik ere, eskualde guzietarik, behar zen igan templorat heltzeko.

Templorat heltzean, lehenbiziko zinen ikusten karrelatu ederra eta berezitu templo inguruan zirezten tente edo kolona lerroak. Iduri zuten harrizko zintoa. Temploko athe handiak bazituen lau lerro harrizko kolona; kolonak denak harri beretik, eta lodiak, lau metra inguru bazuten bakotchak. Ehun eta hirurogoi kolona, lerro bakotchean.

Tenplo gaina egina zen zedra zur finez,
zilarrezko eta urhezko edergailuekin.

Jende mota guziak haitzu ziren tenplo barnerako atherbetan. Tenploan aldiz, sartzen ziren bakarrik Izraeliltak eta Judu ebakituak. Ezin han sartzen kampotarrik. Hanbat gaichto sartzen balimbazen, hiltzen ahal zuten.

Barnago, hamalau harrizko mail eginanta kausituko zinuen leku saindua, egun erran gindezake aldare aitzina.

Tenploan ethualdeak, bat bertzean gaineran ziren, batetik bertzerat joaiteko, behar zen igan.
Paganoen egon-tokitik igaiten zen emaztekien egon-tokirat eta berriz igaiten hiltzeko Izraeliten egon-tokirat. Goragoraino, apezen tokia, sakrifizioen aldarea eta leku saindua.

Grekak tenplo egile gaitzak baitziren, heien hartuak bide zituzten Izraeliltak tenploaren planak.

Aldare aitzinak ere badetu bere neurriberezikat.

Sainduen saindua, zointan apez nagusiak bakarrik sartzen baitzen, hamar metra zituen ekualde bakotch. Pargotatua bera, hamar luzeago, saindua deithu lekuak. Hartan ziren urhezko kandelerailua, usain ones aldarea, eta ogien mahaina.

Egiinak zituzten etchola handi batzu, saindua ~~bat~~ gordetzeko.

Hots, miresgarria zen Tenploa.

× × ×

Igande goizean, Jesus heldu zelarik tenplorat bazen han jende hainitz egite zernahi, tratulant eta diru kambiatzaile.

Bi urthe lehenago, Jesusek kasatuak zituen saltzale horiek. Denak gogoan zuten.

Bainan usaia gaichto batzu kentzea ez da errech. Bizki neke, orduetan karga dutenak, ez badira mintzatzen. Apezak ontoan hiltzen ziren ichil egortean ~~b~~razuten hor irabaz-bide.



Urtcho saltzaleek ezarriak zituzten beren kaiolak,
diru kambiatzaileek han zaugkatzen bere mahainak.
Ardiak, achuriak, zezen gazteak han zituzten ezten beren orgarriak. Tenplo sartzeak iduri zuen merkatu bat bere osoan, kalapita eta abere orroekin.

Jesusek orduan kasatu zituen tratulant horiek; zangoz aurtiki zituen diru kambiatzaileen mahainak, lurrerat botatuz urtcho saltzalen kaiolak, bidean geldiaraziz haugak bizkarrean zoazin gizonak.

Nehork etzioen deus erraiten, beguia beitan zuen, eta denek sendi zuten alde zuela populua. Azkenean, hobendun handienera, apez nagusiera, erran zizkaten solas hok: « Ez dea liburu sainduetan ezarria: ene etchea othoitzaren etchea da ere tuma guzientzat. Eta zuek egin duzue ohoin-zilo bat.

Muntzatzerat ezin menturatuz, ichilik egon ziren apez nagusiak. Heien gain zen tenploko ordena. Bainan eskribauak eta handiek lagun hartuik, biharamunean ausartatu ziren galdegiterat zertako baida kasatu zituen saltzaleak eta zer baimena zen holako baten egiteko?

Beztperan, umil zaudn: jendea kontra zuten, egun gostuan mintzo dira, handiak han dituzte lagun.

Erraiten diote Jesusek: « Nik ere badut galde bat zueri egiteko. Zuen arrapostua ukaiten duetalarik, nik ere erranen dautzuet zer eskuz egin dutan orai egina. » Joani Batistaren bathaioa nundik heldu zen: Jainkoaren ganik heldu zena ala gizonen ganik?

Lanean ziren zanedritak. Behar dute hartu eskualde bat. Erraiten badute Joani Batista Jainkoaren ganik dela, Jesusek ihardetsiko diote: zertako bada ez duzue sinhetsi?

Gizonek eginikako obra dela Joaniz bathaioa erraiten badute, orduan jende guzia kontra ukanen dute, ezin pofeta gisa dauzkate jendek Joani Batista.
Ez jakin zer erran chuchen, ihardesten dute ez dakitela.

Jesusek orduan: Nihere ez dautzuet erranen zer eskuz ditudan egiten zuek gaizki hartzen dituzuenak.

Ez nagusiek gogoan zuketen, ez lekarik, temploko saltzalen kakatzea, bainan oraino Jesusen Jerusalemen sartzea.

Jesus bi egun horietan Bethaniat agertu da, eta Juda eskuz zartek phitzarazi zuten afaritauen eta eskaldunen herra izigarria.

Ikus dezagun orai nola Jesusen hiltzen sartze horrek hunki dituen jenden gogo-bihotzak.

## 3°/ Grezianoek Jesus ikusi nahi (J. XII, 20)

Bazkokari zernahi jende mota biltzen zen Jerusalemerat. Hetan pagano andana bat oraino ez sartuak Juduen sinheste osoan. Jainkoa bakar bat onhartzen zuten eta ahalik haitu nahi horien legearen karga osoa. Jendie zombeitzguo lekarik: olhertza, arnolna, laburmhateko-pausua, orthe guzietako beila. Ez baziren ebakituak, etziren templo barnerat sartzen ahal, bainan templo inguruko artherbeetan ibiltzen ziren nahi bezala.

Jesusen Jerusalemen sartzea ikusia zuten, haren miraku bihak ere ezagutzen zituzten. Hetarik zombaitek nahiko zuten Jesus ikusi eta mintzatu. Filipe apostoluari gainat hurbildu ziren eta erran zioten: « Jauna, nahi dugu Jesus ikusi »

Zertako Filiperi mintzatu dira?

Ezagutzen bide zuten eta Filipek bazakikeen mintzaira greka.

Harrien zen Filipe; berabe aiegno bat bazuen, eta etzuen gogotik galdua errana zioteta Jesusek paganoeri buruz ez joaiteko. Heien galdea ontsa hartua izanen zena?

Kontsultu galdegiterat joan zen Andre apostoluari. Hau landeria handiko gizona zen; Jesusen ondotik ere hura zen lehenik abiatua. Badoazi biak Jesusi buruz, paganoen galdea ezpainetan.

Jesusek ontsa hartu bide zituen; nahiz Ebanjelioak ez duen erraiten. Pagano horiek ez dira gehiago aiphu. Ez du hitzik ihardesten Jesusek, bainan Andreri eta Filiperi, eta huna nola.



Jina da ordua zointan gretsia izanen baita gizonaren Semea.

Egiazki, egiazki dautzuet erraiten: huscoat erori ondoan, ogi bihia hiltzen ez bada, hutsa geldetzen da; hiltzen bada haatik, aihitz frutu ekartzen du. Bere bizia maite duenak, galduko du, bainan lur huntan hasteo duenak, eternitatekotzat atchikitzen du.

Ni zerbitzatu nahi duena, niri jarraik dadila. Ni kausetuko nizen tokietan, ene zerbitzaria ere han aurkituko da, eta ohore emanen dio hari ene aitak.

Huna zer erran nahi duten solas horiek.

Jainkoak bere Semea ohoratu beharra du pasioneaz eta hiltzeaz. Hiltzea ere gainean du.

Jesusen hiltzeak ~~emanen~~ ohore ~~izanen, dio~~ izanen da Jesus berarentzat eta guretzat ~~ere~~, nola bihiaren lurpean usteltzea uzten erroa eta segurtamena baita.

Jesusen hiltzea ez balimbadugu, ez dugu biletarik fluztetik, ez eta Izpiritu Sainduaren jausteritik, ez eta Elizarik.

Martiren odola, girichtino berrien hazia. Hala Jesusen odolak zerua idekitzen du arima andana handiari.

Bainan, balioa ukaiteko, behar da sakrifizioa izan bere baithanikakoa, libroki onhartua. Jesusek obeditu du bere zeruko aitari. Hona zertako duen zeruko aitak goretsi eta altchatu.

Molde bertsuan gretsiak izanen dira hura zerbitzatzen dutenak, beren anaiak zerbitzatuz. Hura bezala obedient izanen eta, haren loriari parte hartuko dute, eta bethi harekin izanen dira.

Ichtant bat gelditzen da Jesus. Begien aitzinean du pasionea, Judasen saldukeria, apostoluen galtzea, kurutzea. Orduan, bere buruarekin mintzo balitz bezala, solas hok erraiten ditu

Orai ene arima nahasia da, eta zer erran dezaket? aita, oren huntarik libra nezazu? Ez ehi; hortarat jina niz eta! Aita, zure izenari emozu ohore.

Zoin handia Jesusen bihotzmina! ~~Ez gora baso tu behar~~ Handiago izanen da oraino agonian Olibetako baratzean. Hemen urrunetik ikusten du bere pasionea, aldiz agonian, gainean dauka.

Ordu berean, boz bat aditzuna izan zen erraiten zuena: Izen hori goretsi dut eta oraidoan ere goretsiko.

Boza aditzun zuten, bainan solasak ez komprenitu, Jesusen bathaioan bezala, eta oraidoan, Damaseko bidean, Paulo~~ren lagunek~~ lurrerat aurtikia izan zelarik.

Askok uste zuten ihurtzuria zela, bertze batzuek aldiz aingeru bat mintzatu zitzaiola.

Jainko aitak zuen lehenagoeztik bere izenaren goretsia, bere semea ~~goratu~~ goretsiz, ezen semearen ohorea aitaren ohorea da.

Dena dela, zerutikako boz horrek Jesus zuen goretsi. ~~eta erran zuen~~
aitzina ariz erran zioten:

Ez da ene gatik boz hori mintzatu, bainan zuen gatik – Orai da munduaren jujamendua. Mundu huntako nagusia kampo emana izanen da. Eta lurretik altchatua izanen nizelarik, gizon guziak bilduko ditut ene ganat.

Kurutzean hiltzen delarik, ukanen ditu Jesusek ohoreak haste. Kurutze gainetik du mundua bilduko. Bainan Juduek ez dute deus komprenitzen solas horietan. Erraiten zioten: "Guk liburu sainduetan hartua dugu, Jesu-Kristo bethi izanen dela, eta zuk nola erraiten duzu: behar da gizonaren semea altchatua izan. Gizonaren semea, nor duzu bada hori."

Izen hori ez dute ezagutzen. Bizkitartean, aldi bat baino gehiagotan ~~errana~~ aiphatua zuen. Aitzina erraiten du:

Oraino aphur batentzat argia zuen erdian da. Ibil zaitezte argia duzueno, etzitzaizten ilhumbeek har. Ilhumbeka dabilanak, norat ari den ez daki. Argia duzueno, izan zazue argian sinheste, argiaren seme izaitea gatik.



Horiek erranetan, Jesus joan zen eta hetaz gordetu. Bainan laster beraz bere egin lehena zuen bere etsai erabiltzeko.

## Astearte Saindu: Jesusen etsaiak

### 1. Herodianos, zaduzear eta farisau (Mt XXII, 15-22)

Astearte saindu, goizik tha zen Jesus templorat heltzean. Bainan jendea aitzindua zitzaion. Goizik heldu zen templorat, Jesus sartzetik gatik. Eta Jesus harat hunatka zabilan templuko atherbe hetan, populuari erakasten zuanez.

Etsaiak etzauden lo. Partida bat galdua zuten, ezin ihardetsiz gelditu zirelarik, bainan bertze partida baten hasterat prest ziren. Farisauak ziren etsai aintzindariak; lagun hartuak zituzten Herodianoak.

Herodianoak, politikako eskualde bat ziren. Herodesen aldekoak, haren adiskide laguntzaileak. Juduak eta erromanoak baizik hasteko zitezkeen, bai ikusiz, etzuela deus balio kontra artzea, onhartzen zuten ordeko ara, emperadoreari kausitu nahiz. Lotsiantuko zuten adiestea hola bere libertatea. Jesus arras begiztan zuten. Zertako ohe? Gure ustez, haren mordoiskea hori lanjerosa iduritzen zitzaioten; bertzalde ~~ere~~ beldur zitezkeen Jesusek hartu nahi zuela Herodesen alkia.

Egun hek dira lehen Jesusi zerbait hedatzen. Erraiten diote: Nagusia, badakigu zu egiazko zirela, eta egian erakasten duzula Jainkoaren bidea, eta ez duzula nehoren lotsarik, etzirelakotz alderdikoaria. Erraguzu bada zure ier gaitzun: Zesari zergaren emaitea haizu dea ala ez?

~~Ez liteke iduri~~

Galde kokina, bi eskualdetarik chorrochtua den ezpata. Behar zen ihardetsi ba edo ez. Ba erraiten badu, ez dute juduek sinhetsiko hura dela Mesias libratzailea. Erraiten badu ez, erromanoek gaizki hartuko dute eta gostako zaio.

Uste zuten farisauek ez zuela emanen zuela, zeren erromanoen eskuetan ezartzekoa zuten.

Jesusek bertzenkien heien maltzurkeriaren berri, erran zioten: «Falsoak, zertako ari zirezte ni hutsean kausitu nahiz? Erakutsi zadazue zergako dirua.» Eta hek erakutsi zioten diruño bat. Jesusek erran zioten: «Norenak dira gaineko itchura hau eta izkiribua?» Ihardetsi zioten: «Zesarrenak.»



Orduan, Jesusek: «Emazue Zesari, Zesarrena dena, eta Jainkoari, Jainkoarena dena.»

Hots! bakotchari berea. Bi nagusitasun badira: Jainkoa eta gobernua. Biak zuzenezkoak bakotcha bere eremuetan. Gizonek ezten baditugute edo Jainkoari dutchoak ez da izanen makurrik.

Jesusen zuhurtziak harritu ditu. Bere buruaz ahalgetuak, ~~etcheat~~ itzultzen dira burua aphal.

×

× ×

~~zituzten~~ Herodianoak bentzutuak ziren. Farisauek izanen ~~zituzten~~ zaduzearrak. Hok apezak ziren gehienak, jaun handiak eta bere jar-lekuetan egon nahiak. Etzuten halako sinheste sobarra. Onhartzen zuten Jainkoa, bainan ukatzen haren Probidentzia, geroko bizia, eta hiletarik phiztea. Beren sinhestearen araberako egin dute galdea.

Huna Juduen artean bizi zen ustaia.

Gizon bat hiltzen zelarik haurrik utzi gabe, anaiak behar zuen hartu alhargunta, hedatzeko izena eta familia. Hain chuchen, zazpi anaiek Zekan zuten emazte bera eta denak hil ziren haurrik utzi gabe. Emazte alhargunta hori, norena daiteke hiletarik phiztean? Holako galdegunoetan loriatzen ziren zaduzearrak.

Etzuten ikusten hiletarik phiztea nola zitakeen. Zazpi gizonek dretcho berak zituzten eta etzen izaiten ahal zazpiena denbora berean.

Erri gafla zombeitguno bazezaketen lagun galde honek.

Jesusek ihardetsi zioten ezti eztia: «~~Ez~~ Trompatzen zirezte, ezagutu gabe liburu sainduak eta Jainkoaren ahala. Hilak phiztuko direnean ez da ezkontzarik izanen, bainan Jainkoaren aingeruen pareko izanen dira zeruan. Eta hilen phizteaz, ez duzue irakurtu, zueri mintzatuz Jainkoak erran duena? Ni naiz Abrahamen Jainkoa, eta Isaaken Jainkoa eta Jakoben Jainkoa. Ez da Jainkoa, hilen Jainkoa, bainan bizien Jainkoa.»

Beraz zaduzearrak arras makurrean dira.

bazen hor galdearen arrapostua.

Abrahamekin egin due Jaunkoak betecieko akhordioa, zinaz finkatuz: ora delakoz eta leiala, ez dituzieztin, ezaguteu, gurbitzateu eta maitatu dutenak. Ez da bakharrik Abrahamen arimaren Jaunkoa, bainan haren gorputzarena ere, bota Abraham oboarena gorputza edo beaaut, sariotatua izanen da Abrahamen gorputza, meregitua duen bezala.

Solas horiek ontsa baitu zituen jendeak.

Eskribau batzuek aithortu zuten naguria ederki mintzatu zela, zadeuzearrak etzuten deus ihardesten ahal.

× × ×

Fariseuek nahi dute egin galde berri. Lege-erakasle bat mintzatu zitzaien, atchemaen nahiz: Nagusia, zoin da legeko manamendurik handiena?

Jesusak ihardetsi zion: « Zure Jaunko Jauna maitatuko duzu zure bihotz guziaz, arima guziaz, gogo guziaz. Hori da manamenduetan handiena eta lehena. Bainan huna bigarren bat, lehenaren idurikoa: zure laguna, zure burua bezala maithatuko duzu. Lege guzia eta profeten erranak oro manamendu hortan bilduak dira.»

Eskribaua kontent gelditu zen. Jesusek erran zion: « Etzira zu Jaunkoaren erresumatik urrun.» ichildu zitzaizkon.

Gaizki heldu zien fariseuak eta [?] beharturik.

Orduan, Jesus hartan zaiote galdeka: Profetek hitzemana duten Mesias hori, ez dea baida Dabiden semea? Nolaz beraz Dabidek deitzen du hura bere Nagusia, liburu Sainduetan izkiriatua den bezala: Jaunak erran dio ene Jaunari: Ene eskuinean jar zite, nik zure etsaiak zure zangoen azpiko ezar artio? Dabiden bere semea deitzen badu, nolaz da haren seme?

Eskribauek eta fariseuek etzakiten zer ihardets.

Chehetatu zerbait galdatu balute Jesusek emanen zioten gogotik. Huntan da misterio horren gakoa: Jesu-Kristo Jaunko eta gizon da. Jaunko gisa, Dabiden Jauna da; gizon gisa Dabiden arrazatik heldu da.

Jesusen etsaiek etzuten holakorik asmatzen ahal.



## 2 – Bethiko Galtzearen parabolak

~~Herodianoak eta zaduzeanak~~, Herodianoak

Fariseu eta Herodiano, zaduzear eta apez erakasle, jakintsun eta jaun handi, oroak Jesusen kontra altchatuak ziren. Jende chehea aldiz alde zuen. Bainan gogoz aldakor da jendea: ez du luzaz atchikiko bere sudoioa. Bazterrerat etzia izanen da Juduen popelua. Galtzerat doa bere faltaz.

Egia hori, Jesusek agertuko du berri parabolatan. Bi semeak ez dituzte solasen arabeirako obrak, parabola hau zaneduteltzat. Mahasti langile hiltzaileak, eta gonbitua onhartzen ez duten jendeak.

a) Bi semeen parabola (Mt. XXI, 28, 33)

Aita batek erran zion bere seme bati: « Haurra, zoazi lanerat egun ene mahasterat.» Ihardetsi zion: « Ez, ez niz joanen.» Bainan, gero, urrikitan sarturik, joan zen. Manu bera eman zuen aitak bigarren semeari eta hunek ihardetsi zion: « Banoa, aita.» Bainan etzen joan. Bi seme horietarik, zoinek bethe du bere aitaren nahia? Han zien guziek ihardetsi zuten: « Lehenak.»

Egiazki, erraiten dautzuet, zuen erran Jesusek, publikanoak eta emazte galduak zuek baino lehen sarthuko dira zerueko erresuman. Zuzentasunaren predikatzerat jin da Joan Batista, eta zuek ez duzue sinhetsi, publikanoek eta emazte galduek baitan sinhetsten ezarri zuten. Eta zuek, hori ikusirik ere, etzirezte damutu gatik, egin zuezte sinhesgogor.

Bi seme horiek, Juduak eta paganoak.

Parabola horrek hau du erakasten: egiazko obedientzia ez da hitzetan, bainan obretan.

Alegia eta ez ziren egin zuten fariseuek. Trukichago mintzatuko zaiote bigarren parabola.

b) Mahastizain hiltzaleak (Mt XXI, 33)

Huna parabola Jesusen ahotik.

Bazen etcheko jaun bat, zoinak landatu baitzuen mahasti bat, berroz inguratu, lako bat ere hartan egin, dorre bat altchatu, eta mahastizain batzuen etchekoargoan eman. Gero bera joaiten joan zen

Mahatsa onthu zelarik, bere sehiak mahastizainey ganat igorri zituen, bere mahatsaren althatzerat. Eta hazen sehieri lothurik, mahastizainek jo zuten bat, hil bertze bat, bertzea berriz harrikatu.

Berritan, bertze sehi batzu igorri zituen, aitzinean baino gehiago; hoieri ere mahastizainek lan bera egin zioten. Azkenean, igorri zioten bere semea, erranez: ene semea errespetatuko dute. Ikusi zutelarik semea, mahastizainek beren ~~barthan~~ artean erran zuten: hau da premua, hil dezagun eta guria izanen da honen primantza. Eta harturik mahastitik atheratu zuten eta hil.

Mahastiaren nagusia itzultzen delarik, zer eginen diote sehi horieri? Denek ihardetsi zioten batean: hilaraziko dute gaichtagin horiek, eta bere mahastea emanen diote bertze etchezain batzueri. Hok fruitua itzuliko diote denbora jitzen delarik.

Jesusek erran zioten: liburu sainduetan, ez othe duzue irakurtu? Harginek baztererat utzia zuten harria, egina da etche buruko izkina harri. Obra hori Jainkoak egina du eta guk goretsi dugu.

Horra zertako, nik erraiten dauzkitzuet, Jainkoaren erresuma kendua izanen zaitzuete eta emana izanen da fruituak emanaraziko diozkan populu bati.

Apez nagusiek eta farisauek aditu zituztenean Jesusen parabolak, ezagutu zuten hetaz mintzo zela. Gogotik Jesusez jabetuko ziren, ez balire populuaren beldur izan. Jendeak profeta bezala baitzaukan.

Errecha da kompreniteko parabola. Jainkoak artha handiak ukan ditu bere hautuzko populuaz. Profetak igorri diozkan lehenik, gero bere semea. Denak hilarazi dituzte.

Hek baliatu ez dute erresuma, paganoek hartuko dute eta baliaraziko.

Erakaspen bera du bertze parabolak.

c) Eztaietako bazkaria (Mt. XXII, 1, 14)



Zeruko erresumak iduri du bere semeari eztaiak egin diozkan erregea. Hunek gomitatuen bilha igorri zituen bere sehiak eta gomitatuek etzuten jin nahi izan.

Bertze sehi batzu igorri zituen eta erran zioten: errozute gomitatueri: bazkaria egina da, zezenak eta bertze abere pikokoak hilak ditut; behar direnak oro aphainduak dauzkat; zatozte eztaietarat.

Bainan hok etzioten kasu egin, eta joan ziren, nor bere landetcherat, nor bere salerosgoetarat; bertze batzuek sehiak harturik, itsuski laidostatu zituzten eta hil.

Jakin zuelarik, erregea hasarretu zen, eta soldadoak igorririk, hiltzale horiek sarraski arazi zituen eta hein hiria erre arazi. Orduan, sehieri erran zioten: eztaietako bazkaria aphaindua da, bainan gomit zirenak ez dira gai agertu. Zoazte beraz bide kurutzetarat eta aurkituko dituzuenak oro, ekararazkitzue, othoi eztaietarat.

Sehiak joan ziren karriketan barna, eta atchemanak aran, on eta gaichto, bildu zituzten eta aphairu lekua bazkaltiarrez bethe zen.

Mahainean zirenen ikusterat sarturik, erregea ohartu zen, gizon batek etzuela eztaietako soinekorik eta erran zion: adichkidea, nola ethorri zira hunat, zure eztaietako jauntzirik gabe? Eta ichil ichila egon zitzaion gizona. Orduan erregeak erran zioten sehieri: zango besoak estekaturik, aurdikazue kampoko ilhumbetarat. Han izanen dira nigarrak eta hortz karraskak. Zeren, deithuak ~~ain~~ anhitz dira, hautatuak aldiz guti.

Aphairu hori, Jainkoak bere semearen ohoretan egiten duen bazkaria. Gomitua onhartzen ez duten bazkaltiarrak, Juduak. Orduan heldu direnak, paganoak.

Erregeak kausitzen du bazkaltiar bat behar zen apailua gabe. Fedea badu, bainan eskas ditu karitatea eta obra onak. Hek gabe, ez da onhartua izanen zeruko zorionean.

Bethiereko zorigaitzerat joan beharko du.

Salbatzen direnak, nombre handian izanen othe dira, ala nombre ttipian? Ez du parabolak deus holakorik salhatzen. Jainkoaren sekretua da hori.

### 3.- Eskribaneri eta fariseneri gaizkika (Mt. XXIII, 1-39)

Ez du lehen aldia Jesus gaizkika ari zaiotela, eskribaneri eta fariseneri. Zonbat aldiz etzituen gaizkituak beren zikoizkeriaz, beren sinheste alegiazkoaz, beren urguluaz eta handi nahikeriaz.

Huna hemen gaizki lerro bat, gogoan atchikik errechak. Eskribanak eta Fariseanak Moisen predikalkian jarriak dira: egizkitzue bada hek erranak oro, bainan hek eginak, ez egin. Ezen erraiten dute, bainan ez egiten. Bertzen lizkarrean ezartzen dituzte zama pizu ezin kanestezkoak, eta beek, ez dituzte erhi puntaz ere hunkitu nahi.

Gizonen ikusiak izaitea gatik, ekartzen dituzte larruzko cherrendak eta liitsa luzeak. Lehen jar-tokiak nahi dituzte apharirietan eta sinagogetan. Agurrak maite dituzte eta laket zaiote entzutea, nagusia.

Jende guzieri mintzo da Jesus.

Eskribanak eta fariseanak, lege erakasle dira. Behar dira entzun. Bainan heien etsempluari ez jarraik. Ez dira modela onak. Badute erakuspen zornahi: urgulua, zikoizkeria, bere buruak ezagutarazi nahiak. Bethi eta orotan lehen nahi eta horiek entzuten bazuten: nagusia!

Erakuspen horietarik zenbaitek bazituen apostoluek ere. Okasione hortaz baliatuz, Jesusek erraiten diote erakaspen.

Zuek aldiz ez behar nagusi deithuak izaitera: ezen bat da bakarrik zuen nagusia, zuek aldiz oro anaiak zirezte. Ez dezazuela luhar aita izendatuak izan, ezen bakarra da zuen aita, zoina zeruetan baita. Ez zitezten nausi izenik, ezen ez duzue nausi bakar bat baizik, Kristo. Zuen artean handiena dena, zuen zerbitzari



izan dadila. Goratuko ~~nahi~~ dena aphaldua izanen da eta aphalduko dena goratua izanen da.

Jesusen dizipuluek behar dute izan anaiak elgarrentzat. Gogo bera behar dute ondotik jinen diren jendek.

Huna Jesusen gaizkiak eskribanen eta farisanen kontra. (Mt. XXIII, 1-39; Mc XII, 37-40; Lc XX, 45-47; XIII, 34-35; Jean XII, 37-50)

Zorigaitz zueri, eskribau eta farisau faltsuak, zeren hesten baituzue gizoneri zeruetako erresuma. Zihauek etzirezte sartzen eta bertzeak ez dituzue sartzerat uzten.

Zorigaitz zueri, eskribau eta farisau faltsuak, lurraren itzulia egiten duzue eta itsasoa iragaiten, fedeko bat bildu nahiz. Eta bildu duzuelarik egiten duzue ifernuko seme, zihauek baino tzarrago.

Zorigaitz zueri, gidari itsuak, erraiten duzuenak: norbaitek templuaz zin egiten badu, deus ez da, bainan zin egiten badu templuko urheaz, orduan bali da. Eta norbaitek zin egiten badu aldareaz, deus ez da, bainan zin egiten badu, aldarean ezarria den emaitzaz, orduan bali da. Zoroak eta itsuak, zer da handiago? Urhea ala urhea saindutzen duen templua? Zer da handiago: eskaintza ala eskaintza saindutzen duen aldarea? Aldareaz zin egiten duenak, aldare gainean ezarria denaz ere zin egiten du eta templuaz zin egiten duenak, templuan denaz zin egiten du; zeruaz zin egiten duenak, Jainkoaren alkiaz zin egiten du eta alki hortan jarria denaz.

Zorigaitz zueri, eskribau eta farisau faltsuak, belhar batzuen hamarretarik bat pagatzen duzue, bainan bazterrerat uzten dituzue legeko phondu handienak: zuzentasuna, miserikordia, leialtasuna. Egin behar ziren hauk eta bertzeak ere ez huts egin; gidari itsuak, eulitcha aldaratzen [?] duzue eta kamelua irensten.

Zorigaitz zueri, eskribau eta farisau faltsuak, untziaren kampoa garbitzen duzue, bainan barnea bethea da ohointzaz eta lohikeriaz. Farisau itsua, garbi zazu lehenik untziaren barnea, kampoa ere izan dadin garbi.

Zorigaitz zueri, eskribau eta farisauak, zeren hilobi zuritüak bezala baitzirezte: kampotik bai ederrak dira gizonen begientzat, barnea aldiz hilhezurrez eta usteldura mota guziez bethea dute. Hala zuek ere jendea chuchenak zirezte gizonen begientzat, bainan barnea gezurrez eta gaichtakeriaz bethea duzue.

Zorigaitz zueri, eskribau eta farisau faltsuak, hobiak egiten dituzue profeteri eta apaintzen justuen hobiak. Erraiten duzue: bizi izan bagine gu, aiten denboran, ez gintuzken gu ichuriko profeten odola. Aithortzen duzue, profetak hil dituztenen ume zireztela.

Gaizki lerro hortaz, Jesusek kondenatzen du, kartsutasun behar ez bezalakoa, erlijione alegiazkoa eta faltsukeria.

Eman ditzagun chehetasun zenbait.

Eskribauek eta farisauek izigarriko sua zetan beren sinhestera bihurtzeko paganoak. Paganoak ere gogotik heldu ziren Juduen sinheste hortarat. Jainko bakarra zuten adoratzen, eta Juduen ohiturak hartzen zituzten, hala nola larunbatean pausua.

Bainan, askotan, atchikitzen zituzten paganoen sinheste makurrak eta bertze molde gaichtoak. Orduan Juduen sinhestea hartuz, argi gehiagoreko bekatu egiten zuten, bitan ifernuko ume.

Holakoak berak bezen ifernatu egiten zitezten farisauek. Hanik handiena horiek dute emanen erlijione gichitenari ?leatzeko. Ez da mirakulu: zeruetako erresuma hertsten zuten eta sartzea trabatzen.

Huna orai zina edo botua.

Juduek usaia gaitza zuten zin egiteko. Bainan zinaren balioa ezartzen zuten bakarrik zinaren egiteko solastan. Zinaren hitza demendrena kambiatua bazen, deus etzuen balio ohiak. Hots! zina egiten zuen hitzak, eta ez jendearen chedeak.

Legeak manatzen zuen pagatzea, ogiaren, arnoaren, olioaren eta lurrekoak atheratu fateko guzientzat



hamarretarik bat. Urrunago bazoazin farisauek: lurreko belharren hamarretarik bat ere emaiten zuten. Gehiago oraino: ogi buru bat erosten bazen, hartarik ere eman behar zen hamarretarik bat. Farisauen hutsik handiena huntan da: ezdeuskeria horiek atchikiak dira eta baztertzerat uzten dituzte balio handiko zao bertuteak: leialtasuna, zuzentasuna, miserikordia. Hola ariz, ehzetena baztertzen ulitcha eta kamelua iresten!

Untzien garbitzeaz ere gaitzeko artha zuten. Bainan etzuten achola izpirik, untzien barnean ezarri hura ohoinkeriatik bildu zenetz. Bethi molde bera: kampoaz artha, barneaz achola nihondikez.

Farisauen faltsukeria ederki agertzen du Jesusek, ezin ahantuzko itchuraz: hobi kampoz churituak dira farisauak. Eder da hobia kampotik to eginia, bainan barnea usteldurez bethea dela, ertzazula idek!

Profeten hobiak ohoratzen zituzten, bainan profeta bat agertzen bazaiote, edo Joane edo Kristo, hura erhiliko dute arbasoek bezen profetak bezala.

Orduan, Jesusek aitzina. (Mt XXIII, 32-36)

Zuek ere bethe zazue zuen aiten neurria. Sugeak, biperaren odolekoak, nola ihes eginen duzue ifernuko jujamenduari? Igorriko dauzkitzuet profetak, erakusle zuhur eta jakintsunak. Hilarazteko dituzue eta zonbait kurutzean ezartzeko; bertze batzu zuen sinagogetan azotatzeko dituzue eta lasterkatzeko herriz herri; hola zuen gainerat eroriko da ichuri den hobengabeen odol guzia, Abel zuzenaren odoletik hasirik eta Zakarias Barakiasen semeareneraino, hau tenploaren eta aldarearen artean hil baituzue. Erraiten dauzkitzuet egiazki, gaitz guziak eroriko dira jendeki hunen gainerat.

Bethe zazue aiten izaria! Mintzatzeko moldea, erakusteko zoin gaizki hartzen duen Jesusek. Ezin gaitzkiago. Jainkoa luzakor, ez ahantzkor. Ordu bat jiten da asetzen baita Jainkoa eta bere eskua uzten du jendeen, familien eta erresumen zafratzerat.

Izari hortarat heltzen dira Judu populua. Helduko da, ~~hilcez~~ hilarazten duelarik Jainkoaren semea eta haren dizipuluak preso altchatzen dituelarik, orduan populu horri garraski pagarazteko da Jainkoa eta galdatuko dio kondu, zigorkortea ichuria izan den odol guziaz.

(Mt XXIII, 37)

Huna orai Jesusen solasak Jerusalemen kontra.

Jerusalem, Jerusalem, profetak hiltzen eta igorri zaizkitzunak harrikatzen dituzuna, zombat aldiz nahi izan dutut zure haurrak elgarretaratu, oiloak bere chitoak hegal-pean biltzen dituen bezala, eta zuk ez duzu nahi izan! Horra bada zuen etchea hutsik egonen zaizuela. Ezen erraiten dautzuet, ez nauzue ikusiko hitz hau erranen duzuen artean: Benedikatua izan bedi Jainkoaren izenean heldu dena.

Mehatchu izigarria, agintza kontsolagarria! Heien etchea, Jerusaleme hiria laster hustuko da. Erromanoek hasatuko dituzte Juduak.

Jesusek utzi behar dute, bainan berriz ikusiko dute, erraiten dutelarik: Benedikatua izan bedi Jainkoaren izenean heldu dena.

Solas horiek, gure ustez, erran nahi dute, Kristo agertuko dela berriz eta Jerusalemek lorietan hartuko duela. Noiz izanen da berriz agertze hori? Jainkoak daki; harek bakarrik.



## Laugarren Kapitulua: Mundu batzen eta munduaren akabatza.

### 1- Alhargunttsaren amoina - (Mc XII, 41, 44; Lc XXI, 1, 4)

Ezen akizari hori bururatzean, pausatzea gatik, Jesus joana zen emaztekien eskualdeat. Korrali handi bat, zointarik emazteek parte hartzen baitzuten temploko zeremonietan. Bi athe handi, harrizko mail andana batekin.

Mail horietarik baten gainean jarria zen Jesus bere apostoluen erdian. Hortik dirudi ikusten zituen olibetako mendia eta Josafateko harat hunatak.

Sinhestedunen amoinak hartzeko baziren moltsa bereziki, orai ere gure elizetan kausitzen direnen parekoak.

Sekulako jendea bazabilan hor Bazko egunetan. Orduan zituzten egiten beren emaitzak, eta botuen bethetzeak. Aberats batek hartzen zituen eskainiak zeren amoinak.

Jende oste handi horren erdian, huna heldu alhargunttsa pobregno bat. Harek ere nahi du parte hartu temploko dispendioetan. Herabe zen gaichoa. Ekartzen zituen bi zantimaxeno oraiko diru. Ixilikiz ezarri zen amoinak nun zo eman. Bainan emazteak elgarrekin erakurtzen. Aberats bati galdatu zen. Hunek gora gora erran zuen emaitza, eta moltsa berezirat aurtiki. Entzuleen begitartean halako irringu bat agertu zen.

Jesusek ikusi zuen emazte pobre dohakabea. Zer erakaspenaren parada apostoluentzat! Deithu zituen apostoluak eta erran zioten: Egiazki, nik erraiten dautzuet, alhargunttsa horrek gehiago eman duela, ezenez kutchara eman duten guziek. Ala bainan bertze guziek nahasi dutenetik eman dute; horrek ordean, bere eskasiatik zituen guziak, bizitzeko behar zuena oro eman izan du.

Indar handia du amoinak! Horrekin irabazten da lur huntako ontasun guziak baino gehiago, zerua.

2- Jesusen mintzaldi handia munduaren ~~buruzea~~ ~~itzeaz~~ akabatzeaz

Fariseuak gaiztuturik, alhargunaren emaitza goretsirik, templotik atheratu zen Jesus. Badoa olibetako mendiari buruz. Mendiaren mazelan izaitearekin, hobeki ageri dira hiria eta templua! Zer etcheak! Zoin handi, eta zoin eder! Loriatuak daude hor apostoluak!

Jesus aldiz, ichil dago. Apostolu bat hurbiltzen zitzaion eta erran: «Nagusia, so egizu, zer harriak! zer templua!» Ihardesten dio Jesusek: «Horiek oro ikusten ditutzue; nik erraiten dautzuet, horietarik ez da geldituko, harri bat harriaren gainean.»

Aitzina bazoazin ichil, gogoetatuak.

Mendi gainean, temploaren buruan bis, Jesus jarri zelarik, inguruaat jin zitzaizkon Petri, Jakobe, Joani eta Andres - galdatu zitzaioten: «Errazaguzu noiz izanen diren horiek eta zer seinaletarik ezaguturen dugun heldu dela.»

Jesusek ihardetsiko diote, batean aiphatuz templuaren eta munduaren akabantza, artean emanez behar diren erakaspenak.

A. Templuaren eztatzea (Mt XXIV, 1-20, Mc XIII, 1, 14 Luc XXI, 5-24)

Huna hiru seinale zointarik agertuko baita eztatzerat doala templua: Mesias faltsuak, gerlak eta ondoriak, Judea eskualdea gaizki ibilia.

a) Mesias faltsuak = Beraukzue, dio Jesusek, anhitz jinen dira harturik baitute gezurrezko Mesiasen izena. Asko jende bilduko dute sinhesten matuentarat. Ez jarraik heiei!

Zonbat eta zonbat gezurrezko profeta etzen agertu orduan Jerusalemen eztatu aitzin!

b) Gerlak: Harten direlarik gerlak, ez uste ukan naliz ezbiak bururatuak ditutzula, orduan dira abiatzen. Ez dutela ez guichiendoak, bizkerik ere ukanen dute,



hala nola, lur ikara, gosete asko lekutan, eritasun, agertze ikaragarri, eta seinale handiak zeruan.

Izan da holako Juduen populua akabatu zelarik. Gerotan ere izan ditazke molde hortakoak.

c) Jesusen dizipuluek pasatu beharrak -

Aiphatu gaitzgabeak denentzat ditazke, bainan Jesusen dizipuluek ukanen dituzte berexiak.

Fedearen gatik, jazarriko zioizkate etsaiak; eremanen dituzte auzitegietarat, kamporiar edo Judu, eta han beharko dute eman lekukotasun Jesusi. Uchekoek eta ahaideek ezarriko dituzte etsaien eskuetan. Guichtiz anhitz eroriko dira, galduko dituzte fedea eta Jainkoaren amodioa - Bururadino liaal egonen direnak eta hek bakarrik salbatuko dira. ~~Haatik~~ Haatik bere fededunak, Jainkoak ber beiak laguntzeko ditu, bere zuhurtzia heieri emanez. Askok beren fedea aithortuko dute martiriotan.

Altchatuko diren herra gezien gatik, Ebanjelioa hedatuko da munduaren azken zedarrietaradino. Huna zer duen erranen Jondoni Paulok Erromanoeri: «Ez othe dute deusik entzun? Heien harrabotsa hedatu da lur guzian eta heien solasak heldu munduko azken zedarrietaradino» (Rom. X, 18)

d) Judea eskualdea gaizki ibilia.

Ikusten duzuelarik, dio Jesusek, Jerusaleme armadez inguratua, eta desmaskaren debolamendua jarria behar ez den tokian, leku sainduan, Daniel profetak erranaren arabera, orduan, berehala ihes egizue mendierat eta zirieztan bezala, ezen egun hek mendeko egunak dira! Zorigaitz egun hetan haur beharretan edo haurrak bulharrean dituzten emazteeri. Behar da othoitz ihes egitea ez dezazun negua, ez neguko oro gaitzetoek ez eta larunbateko pausuak.

Orduan hautuko populuaren tzuak hilen dituzte, edo preso eremanen paganoen erdirat. Eta Jerusaleme zangopilatuko dute populuek, paganoak bazubetutarteko. (Irakur R. P. Pinard de la Boullaye, carême 1931)

## B. Munduaren akabantza (Mt. XXIV, 21-31; Mc ~~XIII~~, 19-27; Lc XXI, 25-27)

Apostoluek galdatua zioten Jesusi, zertarik ezagutuko zuten beraz, akabatzerat zoala mundua. Hiru seinale izanen dira: Antekristaren eta haren lagunen agertzea, lurreko izigarrikeriak, eta karik jende gezitak, elizinearen uztea.

Zernahi profeta faltsu agertu dira - seinale ainitz egin dute hek ere, nahiz jendea bildu; ez sinhets hek erranak, bainan gogoan egar, munduaren akabantza ari dela hurbiltzen. Berria hedatuko da ere, Kristo agertua dela. Gezurrezko berria hura ere. ~~Jes~~ Gizonaren Semea nehork uste gabean agertuko da chimichtaren pare eta begia idekitzeko artean gizon guziak erabilak izanen dira haren auzitegirat jakin gabe ere agertua dela.

Izanen dira ere lurrean izigarrikeriak: mundua inharrotua, iguzkiak eta elhargiak galtzen beren argia, izarrak erortzen, ikusliarren ikharatzea. Ez jakin chuchen nola dotozken horiek oro. Zer izanen da ere Gizonaren Semearen seinalea? Jakintsunen iduriko: Jesusen kurutzea.

Ez dea zuzen Salbatzaileak ager dezan, azken aldikotz, salbatuen eta galduen begietan, kurutzea, gure salbatzeko Jesusek ibiltetresna izigarria?

Chimichtaren pare izanen da Gizonaren Semearen agertzea.

Agertu direlo, biziak eta hilak, joanen dira tarrapatan, haren aitzinerat, nehork ezin baltzatuzko moltzun batek hartuak. Iduriko dute arranoak zoinak baitoazi hegaldaka denak batean, gorphutz bat erori deneko desertuan.

Gauza bera dio Jondoni Paulok (I Tes. IV, 15).

Seinale horiek agertzen dute klarki akabatzerat doala mundua. Pikondoak eta bertze arbolak lore direlarik, erakusten dute uda ari dela hurbiltzen. Seinale horiek bardin munduaren akabantza.

Gizonek kasu eginen dutea seinale horiei?

Baterez. Gizonak bardin ezagol egonen dira



bethi, ikusirik ere fedea eta karitatea ttipitzen, bizioa hedatzen, gizon gehienek fedea uzten, Kristo agertzen eta izigarrikeriak orotan hedatzen.

Huna Jesusen solasak.

Gizonaren Semea ethortzean gerthatuko da, Noeren demboran gerthatu zena. Orduan gizonek jaten eta edaten zuten, ezkontzen ziren eta ezkontarazten, Noé arkan sartu arte; uhaldea jin zen eta denak itho zituen. Bardin izanen da Gizonaren Semearen egunetan. Orduan bi gizon izanen dira landan, bat hartuak izanen da bertzea utzia. Harrian bi emaztekiak ari baitira lanean, bat hartua izanen da, bertzea utzia. Atzarririk egon zaitezte beraz, ez dakizuelakotz zer orduz ethortzekoa den zuen Jauna.

Egun hura eta oren hura, ez ditu nehork ezagutzen; ez zeruko aingeruek ez eta Jainkoaren Semeak. Jainko Aitak bakarrik.

Jainko gisa, denak ezagutzen ditu Jesusek, bainan ez da munduaren akabantza guri erakastea eman behar zuen ~~[illegible]~~ egitetarik. Badakit bainan ez gurentzat diren jakitatez.

Akabantza, noiz izanen den ez dakigu, izanen dela ba haatik.

Egiazki diotzuet nik, dio Jesusek, jendaia hau ez da iraganen horiek oro gerthatu ditzen. Zeru-lurrak ~~izanen~~ iraganen dira, bainan ene solasak ez dira iraganen.

Jesusen solasek badute zeru-lurrek baino iraupen gehiago. Juduen populuak, leial izan ez den horrek, ikusiko ditu horiek oro bethetzen!

Solas horietan funtsa hautan da guzia: zuek eta zuen aitek hartu duten gaztigua, zuen eta orduko goaizerat eroriko da, hek ere zuekin bat egiten dutelakotz.

Atzarririk egon behar dugu. Izanen da gurentzat azken egun bat; ez dugu ezagutuko munduaren akabantza baino gehiago.

atzarririk zaudezte, ez dakizuelakotz zure ethortzearen eguna. Beren nagusiaren aiduru dauden mutilen pare, ez dakitelakotz noiz jinen den aratsean, gauerditan, edo ollarra kantuz hastean, edo goizean, bildur izan zitezte, Nagusia, uste gabetarik jitean, lokartuak kausi zitzaten.

Erakaspen bera dauka, hamar birjinen parabolak.

3. azken jujamendua (Mt. XXV, 1, 13, 31-46)

Birjinen parabola behar da hartu den bezala. Parabola da eta ez alegoria. Huna Jesusen ahotik

Zerurako erresuma konparatzen ahal dugu hamar birjinari, beren lanpak harturik, eztkont berriaren biderat joan zirenak. Heietarik bortz erhoak ziren eta bortz zuhurrak. Bortz erhoek lanpak hartu zituzten bainan ez oliorik berekin. Zuhurrek aldiz lanpekin batean olio-untziak hartu zituzten.

Eta nola eztkont berriek berantzen baitzuten, denak loaletu eta lokartu ziren. Bainan, gauerditan oihu bat aditu zen: «Huna eztkont berria nun heldu den, zoazte biderat.»

Orduan birjina hek guziak jeiki ziren eta beren lanpak phiztu zituzten. Eta erhoek erran zioten zuhurrerei: «Emaguzue zuen oliotik, gure lanpak hiltzerat doazi.» Zuhurrek ihardetsi zioten: «Beldurrez eta ez dadien aski izan zuen eta guretako, hobe duzue saltegirat joaitea, eta han zuentzat erostea.»

Erosterat joan ziren artean, eztkont berria jin zen, eta prest zirenak harekin sartu ziren eztegietarat eta athea hetsi zen. Azkenean, bertze birjinak ere ethorri ziren noizbait eta erran zuten: «Jauna, jauna, iduki dezaguzu». Ihardetsi zioten: «Egiazki erraiten dautzuet, etzaituztet ezagutzen. Egon beraz atzarririk, ez dakizue nik gero, ez eguna ez ordua.»

Parabola horren funtsa, huna bi hitzez.

Arima girichtinoak bethi behar da prest izan bere espos, Jesu-Kristoren bilkitzen errezebitzerat.



Noiz jinen den ez jakin. Egon prest pesta horra zuhurtzia. Olioa, grazia edo Karitatea. Harek du idekitzen zeruko athea.

Zerro hurrantan ezar dezagun parabola guzia: egon zitezte prest, ezen ez dakizue ez eguna, ez ordua.

Hori gogoan, errechkiago hartuko dugu azken jujamendua. Huna nola duen aiphu Jesusek.

Gizonaren Semea bere handitasunean jinen delarik eta aingeruak guziak harekin, orduan bere loriazko jar-lekuan jarriko da. Jendaki guziak haren aitzinean bilduko dira, eta batzuek bertzen gainetik berechiko ditu, artzainak bere ardiak akherretarik berechten dituen bezala. Ardiak eskuin emanen ditu eta akherrak ezkerr.

Orduan erregeak erranen diote eskuinekoeri: «Zathozte nere aitaren benedikatuak, hartzazue mundua ez hastapenetik aphaindua izan zaitzuen erresuma. Ezen gose izan niz eta jaterat eman dautazue; egarri eta edaterat eman dautazue; arrotza nintzan eta eman dautazue ostatu; buluzia eta jauntzi nauzue; eri eta ethorri zatzaizkitet ikhusterat; preso eta nere ganat heldu izan zirezte.

Onek ihardetsiko diote: «Bainan, jauna, noiz othe zitugu goserik ikhusi, jaterat eman baitarauzkugu, ala egarririk eman baitautzugu edaterat! Noiz ikhusi zitugu arrotz, eman baitautzugu ostatu; ala ierrekorik gabe jauntzi baitzitugu?» Eta erregeak ihardetsiko diote: «Egiaz erraiten dautzuet, nere anaiarik chumeeneri gauza horiek egin dituzuen aldi oroz, nihauri egin dautzidatzue.»

Gero erranen diote ezkerrekoeri: «Zoazte madarikatuak nitarik urrun, deabruarentzat eta haren aingeruentzat aphaindua izan den bethiereko suerat. Ezen gose izan niz eta ez dautazue jaterat eman; egarri eta ez dautazue edaterat eman; arrotza nintzen eta ez dautazue eman ostatu; buluzia eta ez nauzue jauntzi; eri edo preso, eta ez zatzaizkitet ikhusterat jin.

Heiek ere erranen diote: « Baiñan, jauna, noiz ikusi zituzgu gose ala egarriak, etcherik eta toriako rik gabe, eri ala preso, baterere lagundu gabe utzi baitzituzgu? »

Orduan, chandetriko diote: « Egiazki, erraiten dauzkuet, nere chumeetarik edozoin gauza horiek egin gabe utzi ditutzuen aldi oroz, neri egin gabe utzi ditutzue. » Eta hok bethiereko oinhazetarat joanen dira, onak aldiz bethiereko bizitzerat.

Onen eta gaichtoen bebechtea izanen deia, lagunarekin. Jogoan ditutzu, sareen eta irakaren parabolak.

Hau errecha da komprenitzeko.

Artzainek Palestinan, alha tokietarat eremaiten dituzte, ardiak eta akherrak elgarrekin; baiñan, aratsa jiten delarik, elgarretarik berechten dituzte ardiek eta akherrak. Egia erran, bere baitharik berechten dira, ez dutelakotz jitea bera.

Molde berteko bebechtea izanen da azken jujamenduan.

Juje handia, bere aingeruez inguratua, agertuko da eta emanen du bakotchari obren arabera saria. Denek aitzinean emana izanen da jujamendu partikularreko sententzia. Zer eguna! alegrantziazko eguna onentzat, atsegabezkoa gaichtoentzat!

Zatozte, aitaren benedikatuak!

Zoazte, madarikatuak!

Zertaz jujatuak izanen gera? Misericordiazko obrak — bihotz ona dutenek, zerua seguratua dute; bihotz gogorra dutenek aldiz, segura dute gaztigua!

Girichtinoek eta Jesusek bat egiten dute, Jesusen misteriozko gorphutzak moldatzen dituzten lokarriengatik.

Ongia egizu pobre bati, Jesusi egiten diozu ongia. Utzazu pobrea lagundu gabe, Jesus bera diozu bazterrerat uzten.



izakazu ~~Jogoeta~~ bera Jondoni Paulok ezarri du bere epistoletan.

( Orri tente page 210 )

Fin arreria, je l'espère, avant le 30 avril